

TORTURA. Bizkaiko Probintzia Auzitegiak Tobalina eta Olabarri torturatzea egotzi zien

Erredakzioa | DONOSTIA

Espainiako Auzitegi Gorenak baliogabetu egin du Bizkaiko Probintzia Auzitegiak bi guardia zibila jarritako zigorra. Bizkaiko Auzitegiak seina hilabete ko kartzela zigorra, beste hainbesteko inhabilitazioa eta 3.606 euroko kalte-ordaina jarri zien Arturo Prieto kapitain eta polizi operazioaren instruktoreari eta Daniel Simon teniente eta diligentzietako idazkariari. Epaiak frogatutzat eman zuen Juanxu Tobalina euskal presoak eta Aitor Olabarria preso ohiak torturak jasan zituztela Bilboko La Salveko kuartelean eta Madrilen Guardia Zibilaren zuzendaritzan 1992ko urtarrilean. «Tratu txarren xedea atxilotuen borondatea haustea eta horiei lotuta zegoen ETA erakunde terroristaren inguruko informazioa jasotzea zen», epaiaren arabera. Prietok eta Simonek torturen berri izan zutela eta ezer ez zutela egin zioen epaiak.

Guardia zibilek helegitea jarri zuten epaiaren aurka eta Espainiako Auzitegi Gorenak aintzat hartu du, bi guardia zibilak errugabetuz. Auzitegi Gorenaren arabera, zigortuek ez zuten zertan jakin Olabarria eta Tobalina torturatu egin zituztela. Gorenak dioenez, frogatuta geratu da Juanxu Tobalinak eta Aitor Olabarriak zituzten lesioak guardia zibilek egin zizkietela, atxilotu zituzten unetik espetxeratu bitarteko epean. Baina informazioa lortzeko egin zirela esateko «froga sendorik» ez dagoela diote, ez baitute baztertzan atxilotzeko unean eginiko akizatea.

Auzitegi Gorenaren ustez, ez dago frogatuta bi guardia zibilek atxilotuen lesioen berri zutela. Aipagarria da haietako baten begian zuela lesioa eta besteak sudurrean. Hala ere,

Torturatzeagatik bi guardia zibil zigortu zituen epai bat baliogabetu du Gorenak

Torturen berri bazutela ezin da frogatu, Auzitegi Gorenaren ustez



XOUSA SIMAL

Bi guardia zibilen aurka epaiketa egin zeneko argazki bat, iazko otsailekoa.

«lehen begiratuan antzemateko modukoak ez ziren», epaiak dioenez. Horregatik Bizkaiko Auzitegiaren epaiak errugabetasun ustea urratu zuela diote, eta bi guardia zibilak absolbitu dituzte.

Lehen ere errugabetuak

Epaiaketa joan den urteko otsailean egin zen, atxilotetak gertatu eta bederatzi urte igarota. Olabarria eta Tobalina atxilotu zituzten polizi operazio berean atxilotutako gainontzeko gehienek ere «tortura latzak» jaso izana salatu zuten. Urtarrilaren

29an atxilotu eta otsailaren 2ra arte inkomunikatuta egon ziren.

Operazio berean atxilotu zituzten Juan Ramon Rojo, Xabier Arriaga eta Paco Palacios. Pertsona horiek jarritako tortura salaketen epaiketa egin ondoren, 1999ko martxoan Arturo Prieto eta Daniel Simon guardia zibilak, atzo absolbitutako berak, zigortu egin zituen Bizkaiko Probintzia Auzitegiak. Kasu hartan ere torturen egile zuzenak ez izan arren tratutxarren berri izan zutela iritzi zion epaimahaiak. Guardia Zibilek,

ordea, helegitea aurkeztu zuten Espainiako Auzitegi Gorenean eta, oraingoaren antzera, kasu hartan ere errugabetu egin zituzten. Atzo kaleratutako epaian ematen zituzten antzerako argudioak erabili zituen Gorenak iazko apirilean ere. Hau da, zigortutako bi guardia zibilek tratutxarren berri bazutela frogatzerik ez dela.

Aipagarria da 1992ko sareka hartan atxilotutako beste baten salaketa —Enkarni Blancorena— NBEko Torturaren Kontrako Batzorderaino heldu zela eta aintzat hartu zutela.

KALE ERASOAK

Arregi Andoaingo zinegotziari «abisu bat» eman diotela adierazi dute

Erredakzioa | DONOSTIA

Mikel Arregi Andoaingo zinegotzi jeltzalearen autoaren aurkako erasoa eta beste bi auto erretzea hartu zuen bere gain atzo EGUNKARIARA egindako dei anonimo batek.

Hots egin zuenaren arabera, Mikel Arregi EAJko zinegotziari «abisu bat» eman zioten urriaren 30ean, haren «kotxearen ondoan lehergailu bat jarritz». Ekintza horrekin «EAJk azken 25 urte hauetan bezala gaur egun ere euskal gizarteari egiten ari zaion iruzurra» salatu nahi dutela adierazi zuen.

Urriaren 26an «Karlos Garcia andoaindar gaztearen kontra» deklaratu zuen babestutako lekukoaren autoa erre zutela ere jakinarazi zuen. «Pertsona honi esan nahi diogu egindakoa ez diogula sekula barkatuko», gehitu zuen.

Urriaren 15ean beste auto bat erre zutela, baina akatsa izan zela eta haren «jabearen aurka» ezer ez dutela ere adierazi zuen deitzaileak.

Pintaketak PSE-EEko zinegotzien aurka

Urriaren 31n, bestalde, PSE-EEko bi zinegotziren aurkako pintaketak egin zituztela adierazi zuen: Haiei Euskal Herriatik alde egiteko gonbita egiten dietela esan zuten.

LABURAEAN

PPk eta PSE-EEk 240 milioi euroko aurrekontua hitzartu dute Gasteizko Udalean

PPk eta PSE-EEk Gasteizko Udaleko aurrekontua hitzartu zuten atzo. Guztira, 240 milioi euro baino gehiago gastatzeko asmoa du Gasteizko Udalak, aurtan baino %5,9 gehiago. Gasteizko alkate Alfonso Alonsok eta PSE-EEko bozeramaile Patxi Lazcozek bi alderdion «elkarriketarako gaitasuna» nabarmendu zuten. Alonsok akordioa babestu zuen.

Leioako Kurkudi Herriko Tabernak bere urtemuga ospatuko du gaur

Leioako Kurkudi Herriko Tabernak bere lehen urteurrena ospatuko du gaur eta zenbait ekitaldi egingo dituzte. Arratsaldez ekingo diote ospakizunari, kalejirarekin, umeentzako jolasekin eta txokolatazarekin. 19:30ean ekitaldi politikoa izango da, Jone Goirizelaia legebiltzarkidearen eskutik, eta 22:00etan herri afaria izango da, Herriko Tabernan bertan.

Sopelako hiru preso utzi dituzte aske azken asteetan

Leire Legarra, Andoni Botello eta Serafin Blanco Sopelako (Bizkaia) presoak aske utzi dituzte azken asteetan, eta gaur harrera egingo diete udaletxean, 12:30ean. Legarra urriaren 27an irten zen, Langraizko kartzelatik. Botello, berriz, azaroaren 6an atera zen aske, kartzela beretik. Bi horiek sei urteko kartzela zigorra zuten. Serafin Blanco 1995ean atxilotu zuen Frantziako Poliziak. Frantzian preso egon ondoren, 2000ko abenduan estraditatu zuten Espainiara eta bi urte preso egon ondoren aske utzi dute.

Fermin Abaurrea aske dago, bi urte preso egin ondoren

Fermin Abaurrea San Juan ostegunean atera zen Iruñeko kartzelatik, bi urte preso egin ondoren. 1995eko abenduaren 29an atxilotu zuten, Imanol Auzia eta Alberto Piorekin. Auzia ere aste honetan utzi dute aske. Lau urteko espetxe zigorra jarri zieten, 1997an, eta epaia errekurrituta egon arren, due-la bi urte kartzelatu egin zituzten.

Huelvako espetxeko egoerak okerrera egin duela adierazi dute bertako euskal presoek

Abuztuan Jon Igor Solana presoak jasandako jipoiaren ondoren Huelvako espetxeko egoerak okerrera egin duela salatu dute bertako presoek. Funtzionarioen aldetik «probokazioak» pairatzen ari direla diote. Azken gertaera preso baten ziega miaketan —presoa ez zegoela— gako bat aurkitzea izan da. Presoen ustea da funtzionarioek jarri zutela bertan.